

# ARRAIN ZURIAK ETA URDIÑAK

Askoren kezka, jakingurea eta zeaztu naia.  
Zein da arrain zuri eta zein arrain urdin?  
Osagilleak arrain zuria jateko agintzen dabene-  
tan eukiten ditue batzuk euren ezpaiak.  
Alaz eta ortan aituak diñoenez, arraiña ez da be-  
reiztu bear zuri eta urdin lez. Arraiña giartsu eta  
saintsu lez bereiztu bear litzake.

\* \* \*

Giartsu lez artu bear da zuritzat daukaguna. ezker-  
Saintsu (koipetsu) lez urdintzat erabilten doguna.      ezker-  
Eritxi onetako da Roberto Lotina, bilbotar boti-      tan sartz-  
kario ospatsua.      ten beste maillan sartzeko aukera eukitea.  
Orrela, arrain giartsu lez, zuri lez, sartzten dira le-      Arraiñean, sain edo koipetarako, ze ikusi asko  
batz, faneka, abadixo, oillar eta antzekoak.      dauke ugaritzeko aldiak, ibillaldi denporak eta abar,  
Saintsu edo koipetsu lez, edo nai ba da urdin lez,      eta arraiña txiki izan edo bere mailla ta neurri jato-  
atuna, sardiña, antxoa, berdela, makaela, txitxarro      rraera elduta egon.  
eta abar.

\* \* \*

Eta zetatik bereizte au?  
Lengo denporetan arrain urdin edo saintsu lez  
etsiten zan, bere izatean euneko bost baiño sain (kol-  
pe) geiago daukana. Ortik berakoa zuritzat, giartsu-  
tzat.  
Geroago, aitu (tekniku) batzuz eskabidez, arrain  
mamin edo aragiaren berogarri eta abar ikusita, giar-

tsu edo zuritzat euneko bi koipetara elduten ez dira-  
nei deitzea eskatuten da, eta euneko bostetik gor-  
koei koipetsu edo urdin deitura, eta bitik bostera bi-  
tartekoei, erdi koipetsu. Gaztelaniaz «semigrasos».

Azken mailla onetan sartzten da besigua.

Alaz eta guzti, saintsu eta giartsu deitura eroan  
ten sartzten diran arraiñak, euren denporaldi berezie-  
tan beste maillan sartzeko aukera eukitea.

Arraiñean, sain edo koipetarako, ze ikusi asko  
dauke ugaritzeko aldiak, ibillaldi denporak eta abar,  
eta arraiña txiki izan edo bere mailla ta neurri jato-

Arrain zuriak ur geiago eukiten dabe euren giar-  
retan, urdiñak baiño.

Gaurko beste jakin nai bat alikaturako proteinen  
barri eukitea izaten da. Onetan aituak diñoenez, zuri  
nai urdin deitu, giartsu nai saintsu ta koipetsu mai-  
llan sartu, mota bietan bardintsu daukez proteinak.

AUGUSTIN ZUBIKARAI

## BIZI

*Bizitzaren balioa  
ederrean, eder...  
betetasun lotu  
askagabea  
loia...  
garbia...  
antzekoa edo  
balitz: lezake  
ez dana danez  
litzateke  
ala ez?  
filosofikoki*

*ederki,  
ongi,  
on,  
oi!  
baiña, zertarako?  
itz...  
balitz...  
bazan...  
baletor...  
ba, bai ba, ba...  
baldin era...  
ezker...*

*espero...  
biar edo etzi  
ezin dok ezi  
irea ik...  
zelan gu guztiok  
guztioena  
gure geurea  
eziko ete dogu...  
asi, asita, asten, asiko  
baiña noizko eziko?*

MUNIATEGI ASIER